

«Isuntzako arraunlariok Asterix eta Obelixen herrixka gara»



ANDER DE GREGORIO  
ETA KEPA AGINAGA  
*Lekittarra* traineruko  
arraunlariak

# hiruka

136. zenbakia

2018ko urriaren 4tik 10era arte

## Sudur gorriak mundua aldatzeko

Afizioa ez da soilik ofizio bilakatu Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez lasartearrentzat; herritik eta irrietatik edaten duten bizitza-ikuskera partekatzen ahalegintzen dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak.



HIRIGINTZA | 8-9

### URIBE KOSTA, BILBOREN LOGELA?



Eskualdea lotarako herriez osatuta daudela deitoratu dute askok; baina, zer dira zehazki herri-eredu horiek?

AIREAREN KALITATEA GETXON | 4

### KUTSADURA-NEURKETA ZORROTZAGOEN ESKE

Kutsatzaileak neurtzeko estazio gehiago eskatu du GUK Getxo taldeak, baita OMEren gomendioak kontuan hartzeko ere.

GAZTELUETA AUZIA | 7

### URRIAREN 4TIK 11RA EGINGO DUTE EPAIKETA

Leioako Opus Deiko ikastetxeko 12 urteko ikaslea zenari sexu-abusuak egitea leporatzen diote bertoko maisu ohi bati.

BARNE BARNETIK FEST | 10

### KONTZERTUAK ETA BINILO-IPINTZE SAIOAK

Algortako tabernetan entzun ohi ez den musikari lekua egiteko jaialdiak antolatzeari ekin diote udalerriko bost gaztek.

BERANGOKO NAZIOARTEKO MILIA | 12

### BERRIRO ERE HIRI-MILIA ONENA IZATEKO PREST

Zapatu honetan nazioarteko atletismo-izarrak eta bertoko kirolariak lehiatuko dira Berangoko Nazioarteko Milian.

# «Herrigintza eta irrigintza»

**Euskara eta zoriontasuna eskutik doaz Pirritx, Porrotx eta Marimototsentzat. Motxila kargatu barik, zama sentitu barik, gure hizkuntzatik eta alaitasunez mundua aldatu daitekeela uste du Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez lasartearrek osatutako pailazo-hirukote beteranoak.**

TESTUAK: **KEPA UGARTE MARTIARENA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

**Zelan sortu zitzaizuen aukera pailazoen munduan sartzeko?** MERTXE RODRIGUEZ SERRANO (MARIMOTOTS): Ni antzerkian mundutik nator eta, egun batean, Joxe Marik galdetu zidan ia prest egongo nintzakeen Amona Josefinaren papera egiteko beraien ikuskizunean. Nola ez, aukera hori ikusita, segituan esan nuen baietz. *Amona Josefinaren baserrian* ikuskizuna egin ten hasi nintzen, hurrengo urtean beste pertsonaia bat izan zen, hurrengoan beste bat... eta orain dela 8-9 bat urte, Takolok taldea utzi zuenean, sortu zen Marimotots. Oso labur esanda hogeit bat urte daramatzat taldean.

**Euskalgintzatik datorren taldea da, ezta?** AIORA ZULAIKA SOROA (PIRRITX): Bai. Euskararen inguruko ekimenak egin beharra zegoen duela 31 urte Lasarte-Orian; oso herri erdalduna zen, eta umeak ere erdaldunak ziren, asko Espainiako hainbat lekutatik Michelin enpresara etorritakoak. Beti esaten dugu gorpik elkartu gaituztela gu hirurok, bertan egin zutelako lan gure aitek. Porrotxena etorkina zen, Errezildik etorria; Marimototsena Cáceresetik etorri zen; eta gurea bertakoa da. Esan bezala, euskalgintzak elkartu gaitu, euskarak elkartu gaitu; taldea sortu zen Olentzeroren festa baten inguruan zer bait dibertigarria egiteko eta, gauzak nola diren, egun baterako festa zena hiru hamarkadako abentura ederra bilakatu da. Porrotxek 31 urte daramatza; handik hamaika urtera izan nuen nik taldean sartzeko aukera. Ordurako taldeak bazeukan ospea, eta niretzat ikaragarria izan zen herriko pailazoeekin ibilbide bat hastea. Hemen jarraitzen dugu.

**JOXE MARI AGIRRETXE KEREXETA (PORROTX):** Herrigintza eta irrigintza uztartu nahi ditugu. Gainera, euskara alaitasunarekin lotu nahian jaio ginen. Hasieran pailazogintza klasikotik abiatu ginen, eta poliki-poliki konturatu ginen euskaraz eta alaitasunaz gain baloreak landu daitezkeela sudur gorriaren atzetik. Orduan hasi ginen herrigintzatik edaten: egunkarietatik, irratietatik eta, batez ere, bizipenetatik istorioak sortzen. Azkenean konturatu gara edozein gai, esate baterako gaixotasuna, munduaren egoera korapilatsua, kultur aniztasuna, ekologia, askotariko familia-ereduak... landu daitezkeela sudur gorriaren atzetik. Eta ez bakarrik edozein gai. Herrigintzatik edanez, iturria agorrezina da: abestietarako, istorioetarako, bizipenetarako... Denetarako ematen du.

**Irribarreakaz errazagoa da umei holako baloreak irakastea?**

A.Z.: Guk irakatsi baino partekatu egiten ditugu.

JM.A: Azken finean, gure helburua da Euskal Herria eta euskal irria izango denak denontzako mundu batean tokia izatea. Koloretako mundu bat nahi dugu; herrien, hizkuntzen, kulturen mundua nahi dugu; mundu nolabait ekologikoa, gaur egun ez dena. Eta helburua zoriona eta irria izanik, umorea lantresna garrantzitsua da hori lortzeko.

A.Z.: Umorea ez da algar edo txiste bat bakarrik; harago doa. Guretzat afizioa ez da bakarrik ofizio bilakatu: bizitzeko modua, bizitza-ikuskera eta bizitzari aurre egiteko era bihurtu da. Hori guztia partekatzen saiatzen gara herriz herri eta ingurukoekin; etxetik bertatik hasita saiatzen garela esango nuke nik.

JM.A.: Esango nuke, ametsetan ere bizitzan egoteko, bizitzan

## Euskaraldia

Gizartea aktibatze-ko aukera lege-ikusten du Euskaraldia Porrotx pailazoari nortasuna ematen dion Joxe Mari Agirretxek. Beraren berbetan, «Ahobiziak garenak, Belarripres-tak direnak eta ezer ere ez direnak, denak, aktibatu behar dugu. Herriarren aktibazioaren ondorioz, seguru asko, administrazioak egin ahal izango du orain arte

egin duena baino gehiago». Porrotxen ustez, «herri bat gara, komunitate bat gara, hasi familiarik, jarraitu eskolarik, herrigintzatik eta administrazioetik. Elkarrekin joan behar dugu, eta baten batek huts egiten badu, kamutsa da bidea». Euskaraldia hori dena hauspotzeko bide bat izan daitekeela dio pailazo ezagunak.



# za uztartu nahi ditugu»



## Nor da nor



**Aiora Zulaika  
Pirritx**

Berak bete zuen hiru urtez taldean egon zen Ainhoa Beristainen tokia, 1998an. Ordurako taldean zebilen pertsonaia txikiagoak egiten.

**Joxe Mari Agirretxe  
Porrotx**

1987an Takolo, Pirritx eta Porrotx taldea sortu zutenetakoa. Porrotxek 31 urte darotza oholztan.



**Mertxe Rodriguez  
Marimotots**

Marimotots pailazo-taldean sartzea eta pertsonaia finko legez ipintzea erabaki zuten 2008an.

jarduteko eta bizitza ulertzeko modu bat dela umorea, errespetuzkoa, eraikitzailea eta aurrerakoa.

**Beraz, zuon lana ez da amaitzen aurpegia garbitzeaz eta sudur gorria kentzeaz batera?** JM.A.: Ez da hor bukatzen. Lasarte-Oria Berreuskaldundu Dezagun taldean ari ginenean, ekin egiten genuen; pailazogintza izan zen osotasun horren zati bat. Gerora ere, nahiz eta profesionalizatu, herrigintza hor dago; batez ere guretzat iturri agorreztina eta Euskal Herrian daukagun altxorra delako. Bestalde, guretzat, hizkuntza ez da elkarrekin komunikatzeko tresna soil bat; baloreak transmititzeko bide bat da. Ez da kasualitatea gure bertsolariek, idazleek eta abeslariak zer mezu eta zer gai jorratzen duten, zer mundu-iuskera duten... Zerbait komuna da. Horrek eramaten gaitu pentsatzera, mundua aldatzekotan, txikitasunetik aldatu nahi badugu, guk badaukagula zeresan handia horretan guztian. Horrek ez du esan nahi motxila kargatu nahi dugunik gure bizkarren gainean.

A.Z.: Motxila kargatzea baino, esango nuke euskaldunon beste ezaugarri bat dela auzolana; gure lan egiteko modua da eta oso aberasgarria izan da urte hauetan guztietan, bai elkarteekin lan egin dugunean, bai sortzaile andanarekin (bertsolari, idazle, margolari, diseinugile...) aritu garenean.

**Zer duzue gogokoen pailazoak izateaz?** A.Z.: Pertsonaiak ematen didan askatasuna da gehien atsegin dudana; erabateko askatasuna da. Gainera, lotura handia dauka umearekin; umeak oso askeak dira. Pertsonak daukzan muga guztiak gainditzen ditu pertsonaiak; izan ere, gizarte batean funtzionatu behar duzu, kanon eta rol batzuk bete behar dituzu... Nolabait, inguruak hegoak moztzen dizkizu, eta zuk zure buruari ere bai. Pertsonaiak izugarritzko askatasuna ematen dizu.

JM.A.: Lehen esan dugun bezala, Pirritx, Porrotx eta Marimotots jaio zirenean, guk guretik eman genien: hitz egiteko modua, pentsaera, sentimenduak... Eta poliki-poliki pertsonaiak hasi zitzaizkion pertsonari ematen. Besarkadak ematen dituzunean, une horretan bizitzen ari zaren horrek betetzen zaitu; eta konturatzen zara pertsona bezala ere jokatu dezakezula. Aiorak esan duen bezala zure hegoak moztu gabe, zure haur hori bazterrean utzi gabe.

M.M.: Horretaz aparte, erdal-mundutik etorrita, euskara nahiko heldua nintzenean ikasi nuen nik.

JM.A.: Horregatik dago talde honetan Marimotots; eredu bat iruditzen zaigu euskal herritar askorentzat.

M.M.: Horretaz guztiaz aparte, nik ezagutzen ez nuen bizimodu ezberdin bat aurkitu nuen. Gaur egun, hizkuntzaz aparte horren atzean dagoen guztia ezagutzen dut: Euskal Herria hizkuntzaren bidez ezagutu dut.

**Bizimodu bat izanda, noiz utziko diozue pailazoak izateari?**

JM.A.: Txantxetan esaten dugu, hiltzen garenean, bi zulo egin beharko dituztela hilkutxaren aurrealdean, zapatak ateratzeko.

A.Z.: Hori Porrotxek esaten du. Kar, kar.

M.M.: Nik ez dut horrelakorik behar; nire zapatak tamaina arruntekoak dira. Kar, kar.

JM.A.: Egia da hau guretzat ofizioa baino gehiago dela. Lanbide moduan pentsatuko bagenu laster jubilatuko behar dugula, agian jubilatuko gara nomina bat izatetik; baina nik uste dut hil arte joango garela elkarrekin Joxe Mari eta Porrotx, Aiora eta Pirritx zein Mertxe eta Marimotots. Pailazo hori izateari ezingo diogu utzi, dagoeneko bagarelako.

M.M.: Beste kontu bat da oholztza gainean egongo garen.

A.Z.: Bai, hori ere egia da, dagoeneko gazte-gazteak ez gara eta. Kar, kar, kar. ◀

GETXO | Airearen kalitatea

# Legeak ipinitako mugak nahikoa dira osasuna babesteko?

**Azken urteetan Getxoko airearen kalitatea txarra izan dela salatu du GUK talde politikoak. Udalak onartu ez duen mozio baten bidez, kutsadura neurtzeko sistema hobetzeko eskatu dute, besteak beste.**

UNAI BREA ▶

**U**dalerrian gero eta gehiago dira sare sozialen bidez airearen kalitate eskasa eta usain txarrak salatzen dituztenak. Horixe izan zen GUK udal-taldeko Kike Pradak irail amaierako osoko bilkuran aurkeztutako mozioaren sarrerako argudioetako bat. Getxon airearen kalitatea neurtzeko sarea indartzeko eskatu zuen GUKek, baita ere kutsadura atmosferikoagaz arazoak dituzten udalek neurriak hartzeko eskumena edukitzea.

Mozioaren puntu azpimarragarrienetako bat legeak onartutako kutsadura-mailaren eta Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) gomendatutako baloreen arteko aldeari zegokion. Zenbait substantziaren kasuan, OMEk onargarritzat dituen gehieneko kutsatzaile-kopuruen oso gainetik daude Europar Batasuneko legediak baimentzen dituenak. GUKen asmoa zen Getxoko Udalak (baita beste batzuek ere, mozioa hainbat lekutan aurkeztu dute eta) Eusko Jaurlaritzari eskatzea OMEren parametroak kontuan har ditzala aire-kalitatearen gaineko datuen balorazio publikoa egiten duenean.

**LEGEZKOA BAI, BAINA...** EAEko Ingurumen Sailak bere webgunean ditu ikusbide airearen kalitatea neurtzeko estazio-sarean jasotako datuak. Haien balorazioa ere eskaintzen du, koloreen araberrako sailkatze-sistema batez. Sailkapen hori egiteko, legediak ipinitako mugetan oinarritzen da Jaurlaritza; oso gutxitan gaintitzen dira langa horiek, eta honenbestez kolore berdea izaten da nagusi balorazio *semaforiko* horretan, baita Getxori dagokionez ere. Hori arduragabekeriatzat jo zuen Kike Pradak irailaren 26ko mozioaren eztabaidan. GUKekoaren esanetan, airearen kalitatea herritarren osasunagaz lotutako gaia da batez ere, eta ondorioz osasunaren jagoletzaren ikuspuntutik kudeatu beharko litzateke, «eta ez mugatu beste barik legea betetzera».



Automobilek botatako kea da aire-kutsaduraren iturri nagusietako bat.

## Estazioak non?

### Getxokoa, hilerri ondoan

Oraintxe kutsadura neurtzeko estazio bakarra du Getxok Jaurlaritzaren sare publikoan, hilerri ondoan. «Udalerriko gune populatuenetatik urrun», GUKen esanetan. Udal Gobernuak erantzun du kokapen hori egokia dela, haizea normalean harantz joaten delako.

### Portuko estazioak

GUKek eskatu du Bilboko Portuak dituen hiru estazioetako datuak gehitzeko herritarren esku dagoen informazioan. Batez bestekoak baino okerragoak izaten dira horko datuak.

Ecologistas en Acción taldeak espainiar Estatuko aire-kalitatearen gaineko txostena kaleratzen du urtero, eta beti azpimarratzen du OMEk emandako gomendioen gainetik kutsatutako airea arnastu ohi dutela milioika herritarrek. Getxori dagokionez, txostenak dio 2017an OMEren balioak gaintitu zirela Algortako estazioan (Ingurumen Sailak gaur egun udalerrian duen bakarra) PM izeneko partikuletarako, kopuruak legeak baimendutakoaren barruan mantendu baziren ere.

GUKeri emandako erantzunean, Jose Luis Landa Ingurumen zinegotziak argudiatu zuen OMEk emandako balioak orientagarriak direla, gaur egun errebisatzen dabiltzala eta 2020rako aurreikusita dagoela berriak ematea. «Illo horiek munduko hainbat hiri handitan dauden kutsadura-arazo oso larriei erantzuteko», esan zuen PSE-EEko kideak. «Euskadiko egoerak ez dauka zerikusirik, legeak ipinitako mugak behar bezain murriztaileak dira gure lurraldean dugun errealitaterako. Airearen kalitatea hobetzea beti dago, baina ez dago horri lotutako osasun publikoko arazorik hemen». ◀

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

## GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 - 48991 ALGORTA  
944 305 243 - 607 952 977  
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

Kalitatea ERASMUS+

BAI

Areeta Larios Sopela

Auto Lana

Out

KIVA

Algorita

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA  
(Arene azpi, 15)  
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

ERANDIO | Emakumeen Jabekuntza Eskola

# Ahalduntze feministarako tresnak eskura ipini dituzte

**Urriaren 17an bosgarren ikasturteari ekingo dio Erandioko Emakumeen Jabekuntza Eskolak, 2019ko ekainaren 7ra arte. «Erreferentziazko gun» bihurtzeko bidean dela uste dute Udal Berdintasun Arloan.**

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

**E**randioko Udal Berdintasun Arloak zazpi ikastaro antolatatu ditu oraingoan, denak doakoak. Askotariko trebakuntza-eskaintza egin dutela azaldu dute: «Literatura-edota dantza- diziplotan sakontzeko aukera emango diguna, besteak beste». Halaber, nabarmendu dute «autodefentsa zein amatasun kritikoagoa bizitzeko» aukera izango dela, lana bilatzeko tresnak ikasteaz gainera. Bestalde, «oinarri feministatik abiatuta elkarri entzuteko eta laguntzeko espazio bat sortuko dugu», iragarri dute, «baita gorputzaren zaintza eta sexu-osasuna lantzeko beste bat ere». Tailer denak gaztelaniaz egin ahal izango dira; euskaraz, osteratailer bakarria izango da: autodefentsa feministakoa, Altzagan. Gaztelaniaz ere egingo dute ikastaro hori, Astrabuduan.

Antolatzaileen arabera, «topaketa, irakaspen eta aliantzak egiteko urteak izan dira udalerriko emakumeentzat, eta banakako zein taldeko jabekuntza-prozesuetarako tresnak aurkitzeko gunea aurkitu dute Eskolan». Hala, uste dute irakasleen zein ikasleen ekarpenei esker, «erreferentziazko gun» bihurtzeko bidean dela Jabekuntza Eskola, «hausnarketa, eraldaketa, eztabaida eta proposamen kolektiboak egiteko leku sinbolikoa, betiere jendarte justu, askotariko eta parekideagoa lortzeko asmoz».

**IZEN-EMATEA ZABALIK IKASTURTE OSOAN.** Zazpi ikastarotatik bost Altzagan egingo dira (bi Erandioko emakumeen elkartearen lokalean, beste bi Tartanga kiroldegian, eta bakarria Bekoa ikastetxean), beste bi Astrabuduan (Astrabuduko kiroldegian eta Josu Muruetan, bana) eta bakarria Erandiogoikoko Gizarte Etxean. Izen-ematea daborduko zabalik dago eta gura den ikastaroa hasi baino bost egun lehenagora arte egin ahal izango da; hala, lehenengo tailerrean, «Pelbis-zorua indartzea»



Euskaraz tailer bakarria egingo dute: autodefentsa feministakoa. © BELDUR BARIK - EMAKUNDE

## Ume txikiak ez dira traba Eskolara joateko

**Ikastaroek iraun bitartean haurtzaindegiz-zerbitzua izango da, bi eta hamar urte bitarteko umeentzat, beti ere ikastaroa hasi baino bost egun lehenago eskatuz gero. Horretarako, nahikoa izango da 944 175 616 telefonora deitzea edo berdintasuna@erandio.eus posta elektronikora idaztea.**

ikastaroan, urriaren 12ra arte dago izena emateko aukera. Tailer denetan lekuak mugatuak direnez, izena emandakoen ordena errespetatuko da. Dena den, Erandion erroldatutakoek lehentasuna izango dute, eta jasoko diren eskakizunen arabera lekuak zozketatzeko beharra baloratuko dute.

Inskripzioa posta elektronikoz egin daiteke, mezuren bat berdintasuna@erandio.eus helbidera igorritz. Modu berean, zuzenean pasa daiteke honako lekuetatik: Altzagan, Berdintasun Zerbitzutik, Bekoa ikastetxean, eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan; Erandiogoikoan, Gizarte Etxetik, 16:00etatik 21:00etara; eta Astrabuduko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan. Edozein zalanza, iradokizun edo ekarpen izanez gero, Berdintasun Zerbitzura jo daiteke.

Lekua lortu eta joateko aukerarik ez izatekotan, ikastaroa hasi baino bost egun lehenago horren berri eman beharra dagoela ohartarazi dute antolatzaileek. Bestela, «inskrribatu den beste ikastaroetara joateko eskubidea galduko du pertsona horrek», aurreratu dutenez. ◀

**aldai**  
Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31

On-line denda

**Bio Zelai**  
www.biozelai.com

**Elikagai ekologikoak**  
Ekoizleak eta banatzaileak  
Etxez etxeko zerbitzua

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)



**Maratila**

**ITZIAR LARRAZABAL  
GARDEAZABAL**  
ELAko eskualde-  
arduraduna

## Urriaren 6an eta 7an denok Baionara

**B**ost urte igaro dira Baionako lehen Alternatiba izan zenetik. Egun batez Baiona alternatiben herrixka bat bihurtu zuten.

Natura eta gehienon bizitza hondamendira daramatzan kapitalismoari eguneroko erabakien bidez aurre egiteko moduak erakutsi zizkiguten Baionan: zer jan, nola ekoitzi, dirua nola erabili, non gorde, nola sortu txanpon soziala, nola mugitu, nola sortu eta eskuratu energia garbia, aberastasunaren eta lanaren banaketa bidezkoa nola egin, kontsumo arduratsua praktikan jartzeko aukerak, bertako ekonomiak dituen aukerak, pertsonen arteko harreman eta zaintzaren garrantzia...

Hego Euskal Herrian ere Alternatiben Herria antolatu dugu, Bilbon 2015ean eta aurten Iruñean. Orain, urriko lehen asteburuan, Baionara itzuliko gara hausnarketa egiteko, alternatibak proposatu eta sozializatzeko.

«Dagoena ez zaigu gustatzen», esaten du jendeak, «baina alternatibarik ez dago». Egia esan, alternatibak sortzen ari dira han eta hemen.

Eta zeri deitzen diogu alternatiba? Helburua bizitza jasangarria, bizitza bizigarria, bizitza burujabea duten proiektuak dira alternatiba. Mozkinaren eta kapitalaren ordez bizitza duina eta iraunkorra helburu dutenak.

Gure lan-eremu konkretuan ere, sindikalismoan, erronka handia da, eginbehar ugari dago eta inertziak gairatu egin behar dira. ELAn jakin badakigu gure militantziak klimaren aldeko militantziarekin bat egiten duenean aktibista politiko eta sozial gisa heldu egiten garela. Eta horrek garrantzi handia dauka. Borroka-eremu horiek guztiak elkarren osagarriak dira, justizia handiagoa eta pertsona guztientzako bizimodu duina lortze aldera.

**URDULIZ | Europako Ondarearen Jardunaldiak**

# Santa Marina baseliza, emakumeentzat ipinita



Uztailaren 20an ospatzen da Santa Marina Eguna Urdulizen eta Sopelan eta ez 18an, beste herri batzuetan legez.

**Ondarearen Europako Jardunaldiez goza daiteke Uribe Kostan, azaroaren 10era arte. 18. edizioan, ondarea generoaren ikuspegitik interpretatzeko hainbat gako eman dituzte. Santa Marina baseliza da adibideetako bat.**

**IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►**

**O**ndarearen gaineko hamasei ekimen antolatu dira aurten eskualdean. Batzuk martxan daude daborduko; hori da honako erakusketen kasua: *Emakumea eta euskal pilota*, *Emakumeak eta Bizkaia Zubia* eta *Kati Horna. Emakumeen begirada*. Hurrenez hurren ikus daitezke Plentziako Goñi Portalean, urriaren 27ra arte; Bizkaiko Zubiko terrazetan, urriaren 31ra arte; eta Berangoeta kultur etxean, urriaren 31ra arte.

**SANTA MARINA, «EMAKUMEENTZAKO BASELIZA».** Hurrengo ekimena bariku honetan izango da, urriaren 5ean, Sopela eta Urduliz batzen diren Santa Marina baseliza, Santa Mariñe modura ere ezaguna, hobeto ezagutzeko. Goizeko 11:00etan hasiko da bisita gidatua, Urdulizko Andra Mari elizatik abiatuta. Ordutegia eta irteera-lekua ez dira kasualitatea: urtero, uztailaren 20an, ordu eta leku beretik irteten dira Urdulizko fededunak erromerian, baselizarako bidean. Antzina,

Santa Marinan gurtzen den Santa Liberadaren irudia Andra Mari elizatik atera eta igotzen zuten urduliztarrek, meza nagusiaren buru izan zedin. Barikuko txangoaren azalpenak emango ditu Juan Manuel González Cembellín Bilboko Eleiz Museoko zuzendari eta Ondarearen Europako Jardunaldien ohiko kolaboratzaileak, euskaraz eta gazteleraz.

Ekimenaren antolatzaileen arabera, haitzean zulatutako Santa Marina baselizak «antzinako eta egungo errituak elkartzen ditu». Urdulizko lekuri garaienean egin zuten, 350 bat metroko altueran, itxura gotikoa emanda. Santa Marinaz eta Santa Liberadaz gainera, euren beste zazpi ahizparen omenez eraiki zen baseliza. Bederatzi santuak batera jaio ziren, erditze berean, Baionan, II. mendean. Denak santu egin zituzten eta horietako batzuk ordutik dira egoera latzetan dauden emakumeen babesle, sinesmen katolikoari jarraituz. Gaur egun, oraindino, haraino doaz haurdun dauden hainbat eta hainbat emakume, kandel-eskaintza egin eta erditze ona eskatzera. Antzina jaioberriak ere eroaten ziren hara, bedeinkazioa jaso zezaten.

Baseliza bereari lotuta beste istorio batzuk daude, hala nola leinu bandokide garrantzitsu baten ahaide nagusiak luxu handiko opari bategaz haurdun utzi zuen gaztea *konpentsatu* gura zueneko.

Bisitan parte-hartzeko, aurretik izena eman beharra dago, 944 065 519 telefonoan edo turismo@sopela.eus helbidean. ◀

## Hurrengoak

**Urriak 7 eta 14, domekak**

11:30  
*Portu Zaharreko emakumeak. Antzerti-bisitaldia.*

**Urriaren 10etik azaroaren 4ra**

*Punta Begoña emakume hitzean. Ikus-entzunezko erakusketa.*

**Urriak 28, domeka**

19:00  
*Emakumeak Berangoko historian. Antzezpena.*

LEIOA | Gaztelueta auzia

# Ustez ikasleaz abusatu zuen maisua epaituko dute azkenik

**Leioako Gaztelueta ikastetxeko irakasle zenari sexu-abusuak egitea leporatzen diote; atzerapenik egon ezean, epaiketa urriaren 4tik 11ra arte egingo da, Bizkaiko Lurralde Auzitegian. Orain bost urte eta erdi jazo ziren ustezko erasoak; gaztearen sendiak hamar urteko espetxe-zigorra eskatu du.**

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

**O**rain urte batzuk, 2013ko urtarrilean, eman zuen auzia ezagutzera mutikoaren aitak, semeak ustez jasan-dako abusua hainbat komunikabidetan salatuz; Opus Deiko ikastetxeak salaketei erantzun egokia eman ez ziela uste zuen. Aitaren berbetan, Gaztelueta irakasleeta batek sexu-abusuak egin zizkion mutikoari, hasieran 12 urte zituela, 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan. 2011n eduki zuten gurasoek horren berri, gazteak ikastetxera joateari uko egin zionean. Hala ere, familiak salaketarik ez ipintzea erabaki zuen, auzia jasateko moduan ez zegoelako.

Mutikoa adin-nagusitasunera heldu zenean, familiak kereila aurkeztu zuen Getxoko epaitegian. Hilabete askoko prozesuaren ostean, irakaslea auziperatzeko zantzuak zeudela ebatzi zuen Emilio Lamo de Espinosa epaileak, 2016ko maiatzaren 5. epaitegiko magistratuaren arabera, «arrazoizko kriminalitate-zantzuak» zeuden maisua auziperatzeko. Prozesamendu-autoaren eta sumarioaren konklusioaren ostean, Bizkaiko Lurralde Auzitegiak urte-hasieran erabaki zuen ahozko epaiketa noiz egingo zen.

Zigor-eskaerei dagokienez, Fiskaltzak hiru urteko espetxealdia baino ez zuen eskatu akusatua erantzut, eta horrek erabat sumindu zituen gaztearen gurasoak: «Hiru urteko kartzela-zi-



**«Eska daitekeen zigorrrik handiena eskatzen dut: hamar urteko espetxealdia»**

LETICIA DE LA HOZ  
IKASLE OHIAREN ABOKATUA



**«Nire bezeroaren kontrako akusazioak ukatzen ditut; absoluzioa nahi dut»**

EDUARDO RUIZ DE ERENCHUN  
MATSU OHIAREN ABOKATUA

gorra ez da nahikoa gure semeak sufritzen eman dituen hamar urteak arintzeko», tamaldu zuten. Bitartean, akusatua den Eduardo Ruiz de Erenchunek gezurtzat jo zituen bere bezeroari leporatzen zaizkionak: «Fiskaltzaren eskaera errespetatzen dut, baina oker dago».

Leticia de La Hoz gaztearen abokatuak «jarraikako sexu-abusu delitua» ere gaineratu zuen kalifikazio-txostenean; horregatik lau urte eta erdiko espetxe-zigorra ipiniko liokete Opus Deiko ikastetxeko irakaslea zenari. Hala ere, urte horiek ez litzaizkioke gehituko «sexu-abusuen delituagatik» zehaztutako kondenari. Delitu horregatik eska daitekeen kartzela-zigorrrik handiena eskatu zuen Leticia de La Hoz letraduak: hamar urte.

Azkenik, Eduardo Ruiz de Erenchunek «erabat» ukatzen egin ditu bere bezeroaren kontrako akusazioak. Horretarako, Antonio Manzanero Madrilgo psikologo forentseak egindako txostenean oinarritzen da: «2010etik gazteagaz egon diren adituetako batzuek egin dituzten huts larriak eta manipulazioak agerian geldituko dira idazki horregaz», dio abokatuak.

**IKASTETXEAREN JOKABIDEA.** Gaztelueta irakasle ohiaren aitak salatu duenez, ikastetxeak webgune bat sortu du epaituko duten maisuari babesa agertzeko eta biktima «gezurretan dabilela» jakinarazteko. Dioenez, familiaren bertsioa behin eta berriz zalantzan ipintzen da. «Gainera, webgunearen berri emateko gutunak banatu zaizkie ikasleei, etxean eman ditzaten». Hala ere, familiak lortu du, hainbat komunikabideak harremanetan ipini ostean, bere bertsioa zabaltzea. «Ikastetxearen jarrera iruzurgilea, arduragabea eta gezurtia» dela eta gainera euren baloreakaz, hau da, balore katolikoakaz bat ez datorrela kritikatu du sexu-abusu salaketa aurkeztu zuen Gaztelueta irakasle ohiaren aitak. ►

# SOKA

**IPARRA GALDU GABE**  
VIII. JORNADAS SOBRE IPARRALDE

**ERAKUSKETA** Romo Kultur Etxea  
**EUSKAL DANTZAREN URRATSETAN**  
Urriak 4 — Azaroak 4  
**Urriaren 15etik 26ra** — Bisita gidatuak taldeentzat  
Informazioa eta izena ematea: 94 466 00 22

**JARDUERAK**

|                   |                                        |
|-------------------|----------------------------------------|
| Urriak 9 - 19:00  | LURRALDEA ETA HERRIA —Hitzaldia        |
| Urriak 13 - 20:00 | ZAZPI SENIDEKO —Antzerkia              |
| Urriak 21 - 13:00 | ARDO DASTAKETA MUSIKATUA               |
| Urriak 25 - 19:30 | BIRIBILGUNE —Literatura solasaldia     |
| Urriak 26 - 19:00 | PAULINE ETA JULIETTE —Kontzertua       |
| Urriak 27 - 19:30 | ANJE DUHALDE —Kantu jira+ Kantu afaria |
| Azaroak 3 - 19:00 | DANTZA PLAZAN —Dantza                  |
| Azaroak 4 - 18:00 | IRAKURKETA MUSIKALAK —Kibiri Taldea    |

www.getxo.eus

Getxo

# Uribe Kosta, Bilbo metropolitarraren logela?



Lotarako herri-izaera duten auzo ugari aurki daitezke eskualdean, hala nola Sopelako Sopelmar. OSKAR GUTIERREZ

**Beharginak eta lantokiak bereizteko herri-ereduak askotarikoak izan dira historian zehar, Londresko Industria Iraultzaren garaitik gaur eguneko HAPOk agintzen dutenera arte. Uribe Kosta lotarako herriz osatuta daudela deitoratu dute askok, baina, zer dira zehazki herri-eredu horiek?**

TESTUA: IKER RINCON MORENO ►

**K**olore berde, urdin eta grisen artean bizi gara Uribe Kostan, landek, itsasoak eta eraikinek inguratuta. Zorionez ala zoritxarrez, atzean utzi ditugu Ibaizabal itsasadarren inguruetan garatutako industria ilun eta kutsakorren irudiak, horren aztarnaren bat edo beste oraindino aurki daitekeen arren. XIX. eta XX. mendeen artean Bizkaian industrializazioaren eskutik etorritako fabrika eta lantegi gehienak Bilbo handian metatu ziren, ibaiaren ezker aldean. Inguru hori arrantzalea izan zen sortzez, Santurtzin eta Zierbenaz, batez ere; ondoren, aldiz, industriaren etorreragaz sortu berri ziren lantegietako beharginak hartzeko etxebizitzetaz betetzen hasi ziren inguruok, hala nola Barakaldon eta Sestaon. Eskuinaldean, ordea, garaiko burgesentzako bizilekuak eraikitzen hasi ziren, Getxon gehienbat. Modu horretan, bizitegi-gune legez garatzen hasi zen eskualdea, urte luzez, lantegietako eta fabriketako giro beltz eta ilunetatik eta behargin txiroen bizi-modu latzetatik ihes egin guran.

Ibaizabal itsasadarren eskumako aldean (Erandio, Leioa eta Getxo) eta Uribe Kostako gainontzeko zazpi udalerrietan etxe ugari egin dira urteotan, askotarikoak, txaletak zein pisublokeak. Egoera horrek ezinegon eragin du inguruotako bizilagunen artean, eraikuntza «basati» horrek hainbat eragin izan

**«Lan-indarra merkatu global baten merkantzia modura ulertzen hasi zenean, gizartea kategorizatze eta banatzeko ohitura egon da»**

**«Lotarako herriak sistema kapitalistaren erremintak dira, gizartea osatzen duten gizon-emakume denak inorentzeko»**

IÑIGO GALDEANO PÉREZ  
ARKITEKTOA

ditzakeelako. Tosu Betirako asanbladak salatu duenez, gaur egun Bilbo Handian eta Txorierrin behar egiten duten gizon-emakumeentzako «lotarako eskualde» bihurtu gura dute agintariek Uribe Kosta, eta horrek herritarren bizi baldintzetan ondorio latzak dituela ondorioztatu dute.

«Hasteko, jende gehienak egunero joan behar du Bilbora edo Txorierrira; mugikortasun- eta kutsadura-arazoak areagotzen dira», azaldu dute. Era berean, balizko lotarako herri horiek «toki mortuak» direla deitoratu dute: «Herrietan ez dago ezer; lursailak etxebizitzak eraikitze erabiltzen dituzte, eta eremu handiak erabiltzen dituzte saltoki-guneak eta denda handiak baino ez egiteko». Berango horren adibide modura jarri dute Tosukoek, eta horrexegatik aukeratu zuten udalerriri hori lotarako herrien nondik norakoen inguruan eztabaidatzeko berbaldia egiteko, *Porlan azpiko lurra irauliz* lelopean garatutako jardunaldietan. *Egunon... Gabon. Berango, lotarako herriak* izenburudun berbaldia eskaini zuten Iñigo Galdeano arkitektoak eta Maite Mentxaka berangoztar gazteak Nebarrebak tabernan.

**LOTARAKO HERRIAK EDO EZ-HERRIAK.** Lotarako herriei berba egiten denean, jende askok pentsatu ohi du lo egitera bideratuta dauden lekuak direla, eta gainontzeko jarduerak denak beste hiri batean egiten direla, hala nola lan egin, bazkaldu eta aisialdiaz gozatu. Iñigo Galdeanoren berbetan, ordea, lotarako herriak sistema kapitalistaren erremintak dira, gizartea osatzen duten gizon-emakume denak inorentzeko. Dioenez, mota horretako udalerriak kontsumorako eta produktiorako pentsatuta daude, txanpinoi-langilearentzat, hain zuzen ere. «Lotarako herri horiek adin ertaineko gizon zuri, osasuntsu, erantzukizun familiarrik gabeko, kotxea duen eta diruduna denaren logelak dira», azaldu du arkitektoak. Hori dela eta, azpimarratu du lotarako herriak kontzeptua erabiltzen dugunean patronala-



## XIX. mendea: *Slum*-ak

Industrializazioagaz batera, Ingalaterrako Londres hirian eman zen hirigintza-ereduaren ondorioz sortu ziren lehenengo *slum*-ak, hiri horren ekialdean. Londres zen garai horretan munduko hiririk handiena eta horren mendebaldean industrializazioari esker dirua pilatzen hasi ziren burgesentzako jauregi eder eta eleganteak eraikitzen hasi ziren bitartean, ekialdean langileentzako auzoak sortzen hasi ziren, bi gizatalde horien arteko banaketa areagotu guran.

Eraikitzen hasi ziren lantegi berrietan lan egingo zuten beharginak batzeko pentsatuta zeuden ekialdeko inguru horiek, zelaiguneetatik hiriburura zetozen gizon-emakume denak hartzeko, alegia. Dentsitate handiko etxebizitzek osatzen zituzten herri edo auzo horiek eta, askotan, bertan zeudenak oso egoera txarrean bizi ziren: kalitate baxuko etxebizitzek, zikintasunak eta osasungarritasun ezak kolera eta bestelako izurriteak egotea eragiten zuten.

Langileen bizi-kalitate tamalgarri horrek eragin zuen klase-kontzientzia hartzea, batzea, antolatzea eta kapitalismoari aurre egiteko iraultzari hasiera ematea. Izan ere, garai horretan hasi zen Marx eta Engels filosofoen sozialismoa gorpuzten.



## XX. mendea: *Suburb*-ak

Amerikako Estatu Batuetan eta beste hainbat herrialdetan emandako fenomenoetako bat dira *suburb*-ak. Gune erresidentzialak dira, hiriko erdigunetik kanpo daudenak. Dentsitate baxuko auzoak edo herriak izaten dira horiek, familiabakarreko etxebizitza piloak osatutakoak.

XX. mendearen erdialdean handitu egin ziren urbanizazio-mota horiek, trenbideak eta errepideak hobetzeagaz batera. Hala, bizilagunek ez zuten arazorik izaten garraio publikoa edo ibilgailu pribatuak hartzeko joan-etorri denak egiteko, lanera joateko eta gainontzeko jarduerak denak egiteko. Auzo horiek hiriaren erdigunetik periferiara joateko exodoaren ondorioz sortu ziren.

Iñigo Galdeano arkitektoak dioenez, mota horretako auzoak ahalbidetzen zuten klase ertaineko gizon-emakumeen ideologia bermatzea, proletalgoaren grebak eragotzeko asmoz. Izan ere, etxebizitza horiek amets amerikarraren zati txiki bat osatzen zuten: lorategia duen etxebizitza, portxea eta autoa. «Kapitalismo indibidualista eta bizitza pribatuaren hipertrofia gorpuztu zuten hiri-eredu horiek, etxea kalearen gainetik jartzen zuen modelo urbanistikoa. Pribatuak publikoari irabazi ziona», Galdeanok azaldu duenaren arabera.



## XXI. mendea: Zonifikazioa

Zonifikazioa hiriguneak eremuka banatzeko prozesua da, gune horietan erabilerak zehatz bat edo beste egitea baimentzen eta debekatzen duena, hain zuzen ere. Normalean erabilerak horiek hurrengoak dira: erresidentzialak, komertzialak eta industrialak.

Horretarako, hainbat lege eta arau ditugu hemen, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Bilbo Metropolitanoaren Lurralde Zati Plana (LZP) eta udalerritako hiria antolatzeko plan orokorrak (HAPO). Galdeanok azaldu duenez, hiriak zonifikatzeko antolamendu horregaz eremuak modulatzeko, gizon-emakumeen egunerokotasuna erregulatzeko eta ordenatzeko, den-dena produktibitate ekonomikoaren funtzionalitatea eta lehiakortasuna areagotzeko helburuagaz. Horren harira, Galdeanok uste du beharrezkoak diren eremuak hiritik urruntzen direnean gauza horiek merkantilizatzeko direla eta herriak dituen beharrianak asetzeari uzten dietela, beste interes batzuen mesederako. Era berean, multinazionalen denda handiak ipintzen direnean, denda txikiak kalte egiteaz gainera, herri-izaera suntsitzen duela deitoratu du arkitektoak: «Horiek ez dira gai herriaren identitatea babesteko eta sustatzeko».

ren logika berdina darabilgula, hau da, «behargin bat txanpinoi-gizon gisa irudikatzen dugu, auzoa osatzen duten bestelako dibertsitatea ahaztuta: umeak, agureak, langabeak eta gainontzeko gizataldeak». Lotarako herriak beharrean, ez-herriak kontzeptua erabiltzea gomendatzen du Galdeanok, «berbek duten indar horrekin jabetu gaitezene eta ez baztertzeko».

Lotarako herrien ideia ez da berria. Grezia eta Erroma klasi-koko latifundioetatik hasita, gaur egun arte, langileak leku jakin bateko ohitura egon da herri eta hiri askotan. Lan-indarra merkatu global baten merkantziatzat hartzen hasi zenean, gizartea kategorizatzeke eta banatzeko ohitura egon da. Ondorioz, harreman pertsonal eta emozionalak atzean utzi eta intereseke erlazioek ordeztu zituzten, diruaren trukekoak, anonimoak eta arrazionalak, hiri kapitalistak osatzeko. Galdeanok gogoratu duenez, horixe izan zen Ingalaterran gertatu zena 1850eko hamarkadan, Marx eta Engels filosofoen garaian, hain zuzen ere.

Lehenengo Industria Iraultzaren urteak ziren horiek, eta Londres zen munduko hiririk handiena, kapitalismoaren eredu. Industrializazioaren eraginez hiriaren mendebaldean burges dirudunentzako auzo aberats eta dotoreak osatzen joan ziren; ekialdean guztiz kontrakoa eman zen. Arkitektoaren arabera, hiriak gizartearen ispilu dira, hau da, gizartearen ematen dena errepikatzen da hiriaren urbanizazio-prozesuan. Kasu horretan, kapitalismo industrialak eragindako burgesiaren eta proletalgoaren arteko banaketa irudikatu zuen Londres berriak. XIX. mendearen erdialdean Ingalaterran sortutako *slum* haiek gizatasuna kentzen zieten langileei. Ondorioz, subjektu horiek denak euren egoeraz jabetu eta klase-kontzientzia hartzen eta elkartzen joan ziren, langile-borroka osatu arte.

**ALDIRI INPERTSONALAK.** Ehun urte beranduago, XX. mendearen bigarren erdialdean emandako AEBetako *suburbs*-ak edo

## Ispilua

«**Hiriak gizartearen ispilu dira, hau da, gizartearen ematen dena errepikatzen da hiriaren urbanizazio-prozesuan**»

## Klase ertaina

«**AEBetako *suburbs*-ak klase ertain kontserbadoreari egokitu zuten, proletalgoaren grebak galarazteko asmoz**»

## Herri-izaera kolokan

«**Kontsumorako gune handiak eraikitzen direnean, komertzio txikiak kaltetzeaz gainera, komunitatea ere suntsitzen dute**»

aldiriak mahai-gaineratu ditu Galdeanok. Horiek dira hiri handien inguruetan eraiki diren txaletez beteriko urbanizazioak, klase ertaineko familientzakoak batez ere.

«Denak berdinak dira, inperzonalak eta xumeak; ezinezkoa da non gauden asmatzea, Kentuckyn edo Floridan», zehaztu du arkitektoak. Dioenez, etxebizitza horiek ideologia jakin bati ondorioa dira: klase ertain kontserbadoreari egokitu zuten, proletalgoaren grebak galarazteko asmoz. «Amerikar ametsaren fikziozko zatiak dira. Kapitalismo indibidualaren eta bizitza pribatuaren hipertrofia gorpuzten dute mota horretako auzoak eta hiriek».

Lotarako herrien edo ez-herrien azkenengo adibide modura, XXI. mendeko hirien zonifikazioa azaldu du Galdeanok. Dioenez, inguruetan ez da hiri klasikoaren aztarnarik ikusten, ez dago trinkotasunik eta herriak ez daude ondo mugatuta. «Guztiz kontrakoa da, hiri lausotuak ikus ditzakegu, uneoro handitzen doazenak eta guneka banatuta daudenak».

Horren arabera, gaur egungo hiriak artifizialki sinplifikatu daude, funtzio bati erantzuteko osatuak eta guztiz kontrolatuta, egoitzarako, lanerako, kontsumorako eta aisialdirako zentroak interkonektatuta. «Den-dena funtzionaltasunaren eta lehiakortasunaren mesedetan, ahalik eta etekin ekonomiko handiena bilatzeko», Galdeanoren berbetan.

Adibide modura ipini ditu Leioako EHuko campusa eta Zamudioko parke teknologikoa: «Hori da bizi dugun hiria. Bizi-modua ordenatzen digute, non bazkaldu behar dugun esaten digute, non lo egin, non ikasi, non lan egin, non deskantsatu eta non dibertitu...». Era berean, Galdeanok salatu du kontsumorako gune handiak eraikitzen dituztenean, herrietako komertzio txikiak suntsitzeaz gainera, komunitatea ere suntsitzen dutela, ez direlako gai herri-izaera babesteko, errespetatzeko eta sustatzeko. ◀

**BARNE BARNETIK FEST| Algortan musika sustatu guran**

# «Getxoko giro musikala hilda zegoela ikusten genuen»

IKER RINCON MORENO ▶

**U**dalerriko taberna «gehienetan» entzuten diren estiloak baztertu eta horietan lekurik ez duen musika-mota berreskuratzeko jaialdiak eta kontzertuak antolatzeari ekin diote Algortako hainbat adinetako bost gaztek, orain dela bost urteko ideia gauzatu. Daborduko hainbat kontzertu eta binilo-ipintze saio antolatu dituzte; hurrengoa zapatuan izango da, hilaren 6an, Algortako Txorimalo gaztetxean.

**Hasteko, noiztik eta nondik dator Barne Barnetik Fest edo jaialdiak egiteko asmoa?** Bost urte dira ideia hori gure buruetan bueltaka dabilela. Behin, Euskal Herrian tradizioa den moduan, mozkortuta geundela hasi ginen proiektuari forma ematen. Denok ikusten genuen Getxoko eszena musikala (giroa eta kontzertuak) hilda zeudela eta bertako gaztetxean gero eta kontzertu gutxiago egiten zirela; hala, jaialdiak antolatzeko elkartzen hasi ginen.


**Zein da jaialdi horiek antolatzearen helburua?** Helburua argia da: herrian gustuko dugun musika motatako kontzertuak egitea eta, bide batez, herriko jendeari jotzeko aukera ematea. Gainera, apurka-apurka talde ezagunagoak ekarri gura ditugu, nahiz eta ekonomikoki zaila izaten den hori...

**Zer-zelako harrera izan dute orain arte antolatutako ekitaldi horiek denek jendearen partetik?** Harrera nahiko ona izan da; jendeak oso gustura hartzen ditu horrelako jaialdiak, eta antolatutako bakoitzean horixe esaten digute.

**Kontzertuak antolatzeaz gainera, bestelako jarduerak antolatu dituzue Getxon, ezta?** Bai. Urtean zehar Algortako Hator tabernan biniloak ipintzeko saioak antolatu ohi ditugu. Hala,



Hainbat adinetako Algortako bost gazte dabiltza Barne Barnetik Fest jaialdiak antolatzen. OSKAR GUTIERREZ



## Hurrengo jaialdia, urriaren 6an

Zapatuan, hilaren 6an, hasi berri den ikasturteko lehenengo jaialdia izango da, eta talde oso ezberdinek jardungo dute Getxoko Txorimalo gaztetxean: Algortako Garrasika, Bilboko Uger eta Legazpiko John Dealer & The Coconuts taldeak. Sarrera 4 euroan ipini dute.

udalerriko taberna gehienetan entzuten ez diren estiloak ipintzeko aukera ematen dugu. Horrez gainera, ideia berriak ditugu eta datorren urtera begira, herrian, kalean, egun osoko jaialdia antolatzeko asmoa dugu.

**Zelan ikusten duzue Getxoko eta inguruotako egoera musikala?** Egia esan, Getxon musika-talde piloa dago, estilo eta kalitate ezberdinetakoak. Orain, gainera, kontzertu asko daude inguruotan. Hala ere, gu harago joan nahi dugu. Gogoko ditugun taldeak eta estiloak ez dira udalek bultzatzen duten ereduaren barruan sartzen. Ez dugu honekin etekinik bilatzen; nahi duguna da mezu bat bilatzea eta askotan jo ezin duten taldeei horretarako aukera ematea.

**Zer edo zeren falta igartzen duzue?** Jendeak gogoia izatea gustuko dituen taldeak herrira ekartzeko eta kontzertuak antolatzeko. Azken finean, guk egiten ez badugu ez du inork egingo gure ordez.

**Zer motatako musika sustatu gura duzue?** Ez dugu musika-mota zehatzik sustatu nahi. Kalitatea eta ospea gailentzen ez diren den jai-eredu baten alde egiten dugu; jotzeko gogoia izatea da nagusi guretzat.

**Etorkizunean zer aurreikusten duzue?** Aspaldiko RIP taldeak esaten zuen bezala: "¡No hay futuro!". ◀



nire aitaren etxea defendatuko dut

ERROMON  
1977. ETIK

**GURE ETXEA**  
taberna

Caja de Ahorros, 14 | Romo-Getxo | T. 94 463 68 80

f Gure Etxea Taberna | eEtxeaGure

# Munduko errimak eta doinuak



**ERANDIO | Inprobisatzaileen Bira**  
Mintzola Ahozko Lantegiak eta Lanku Kultur Zerbitzuak sortutako ekimena da Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira. Besteak beste, Altagako Azoka Zaharrean egingo dute geldialdia, urriaren 10ean, eguaztenean. Hitzordua 19:00etan ipini dute. Tomasita Quiala repentista kubatarra eta Araceli Argüello payadore argentinarra izango dira inprobisatzaile gonbidatuak; Euskal Herriko ordezkariak dagokionez, Amets Arzallus (Hendaia) eta Jone Uria (Algorta) bertsolariek jardungo dute.

## Antzerkia

**Urriak 7, domeka**  
**Linbo planeta**  
18:00 | Areetako musika-eskola | Getxo  
Getxoko Antzerki Jardunaldien barruan. Dejabu Panpin Laborategiagaz. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 5 euro.

## Azokak

**Urriak 6 eta 7**  
**Munduko Landareen IV. Azoka**  
10:00-18:00 | Arboretuma | Leioako campusa  
Metroz joandako bisitarientzat, Astrabuduko eta Leioako geltokietatik EHUraino doako autobus-zerbitzua egongo da. Sarrera: 1 euro (12 urtetik beherakoentzat, doan).

**Getxoarte: El Respiradero**  
10:00-22:00 | Xake plaza (Areeta) | Getxo  
Hogei sortzaileren eta bost bekadunen lanak ikusbide. Ekintzak, dantza, performancea, gorputz-lengoaia, ahotsa, tailerrak eta parte-hartzeko saioak egongo dira. Doan.

## Berbaldiak

**Urriak 5, barikua**  
**Motxiladun umeak**  
19:30 | Romo Kultur Etxea | Getxo  
Sare Herritarrak antolatuta. Ainhoa Etxebarria psikologoagaz, Maialen Zuazo preso ohiagaz eta Ibon Larrinaga boxeolari profesionalagaz. Doan.

## Dantza

**Urriak 5, barikua**  
**Biraka**  
20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela  
Nerea Martinezegaz. Euskal dantza tradizionalaren eta dantza garaikidearen arteko loturak azterbide. Sarrera: 5 euro.

## Erakusketak

**Urriaren 4tik azaroaren 4ra arte**  
**Soka: euskal dantzaren urratsetan**  
Romo Kultur Etxea | Getxo  
Iparra Galdú Gabe jardunaldien barruan. Doan. Bisita gidatuak taldeentzat urriaren 15ean eta 16an. Informazioa eta izen-ematea: 944 660 022

**Urriaren 5era arte**  
**Motxila etorkizunez bete**  
Algortako kultur etxea | Getxo  
Sare Herritarrak antolatuta. Sarrera, doan.

**Urriaren 5etik 28ra arte**  
**Botez bote: un bote por la inclusión**  
Algortako kultur etxea | Getxo  
Amesten elkarteak antolatuta. Aniztasun funtzionala daukaten pertsonen buruzko pinturak, idatziak eta ilustrazioak. Astelehenetik barikura, 08:30etik 14:30era eta 16:00etatik 21:30era; eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara. Doan.

# Ondarearen Jardunaldiak

**Berango**  
**Urriaren 31ra arte**  
12:00-14:00 / 17:00-20:00 Kati Horna.  
Emakumeen Begirada argazki-erakusketa, astelehenetik barikura, Berangoetako kultur etxean. Sarrera, doan.

**Getxo**  
**Urriaren zehar**  
Emakumeak eta Bizkaia Zubia argazkien erakusketa, bertoko terrazetan. Doan.

**Urriak 7, domeka**  
11:30 Portu Zaharreko emakumeak antzerki-moduko bisitaldia. Elkargunea: Getxoko Turismo Bulegoa (Algortako Ereaga hondartza). Izen-ematea: infoturismo@getxo.eus / 944 910 800

**Urriaren 10etik azaroaren 4ra arte**  
Punta Begoña emakume hitzean ikus-entzunezko erakusketa, Algortako Begoña gazteluko galeriak zabalik dauden ordutegian. Sarrera, doan.

**Plentzia**  
**Urriaren 26ra arte**  
Emakumea eta euskal pilota erakusketa, Goñi Portalen. Urriaren 27an, 12:30ean, erakustaldia egingo dute hainbat emakume pilotarik, frontoian. Doan.

**Sopela eta Urduliz**  
**Urriak 5, barikua**  
11:00 Santa Marina. Emakumeentzako baseliza bisitaldi gidatua. Izen-ematea: turismo@sopela.eus / 944 065 519

## Mobilizazioak

**Urriak 7, domeka**  
**Orain presoak** dinamikaren aurkezpena  
13:00 | Udaletxeko plaza | Sopela  
Sare Herritarrak antolatuta.

## Musika

**Urriak 5, barikua**  
**Josu Bergara eta Akorde Txikiak**  
19:00 | Udaltzako aretoa | Gortiz  
Asunak diskoaren aurkezpena. Doan.

## Administrazio-zatiketa gaingidatzeko gakoak, Eneko Bidegainegaz



**ALGORTA | Lurraldea eta herria**  
Berbaldia urriaren 9an izango da, martitzenean; hitzordua 19:00etan ipini dute Azebarri kultur elkarteak.

**Sopela Kantariren kantu-jira**  
19:30 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela  
Tabernaz taberna.

**Urriak 6, zapatua**  
**Barne Barnetik Fest** jaialdia  
20:00 | Txorimalo gaztetxea | Getxo  
Uger, Jon Dealer & The Coconuts eta Garrasika taldeek joko dute. Sarrera: 4 euro.

## Zinema

**Urriak 7, domeka**  
**Hurrak eta lapurrak**  
18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela  
Umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

## Bestelakoak

**Urriak 4, eguna**  
**Berba-poteoa**  
19:00 | Gure Etxea taberna (Romo) | Getxo  
Berialagun-kanpainaren aurkezpena, Egizugaz.

**Urriak 7, domeka**  
**Berbotslagunen Eguna**  
11:00 | Irailaren 23a plaza (Altaga) | Erandio  
Hainbat ekitaldi, Berbots euskara taldeagaz.

**Euskaraldiaren aurkezpena**  
12:30 | Ibarreta plaza | Gortiz  
Parte-hartzea libre.

Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143

www.siazgetaria.com

XV. mendeko dorretxe gotikoa!

ATLETISMOA | Berangoko Nazioarteko Milia

# Herri txiki baten «harrotasuna»

**Zapatu honetan egingo da Berangoko Nazioarteko Miliaren 31. edizioa. Ohi legez, nazioarteko atletismoaren izarrak izango dira Gobelalde kaleko zirkuituan, bertoko oinarritzko kirola ahaztu barik. Probaz harro dago atletismo-taldea.**

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

**B**erangoko Nazioarteko Milian «irabazten duten maila denetako atletek harro sentitu behar dute Berangoko garaikurra lortzeaz». Herri horretan dabilen sentimendua laburbildu zuen horrela Juan Pablo Arnedo udal-idazkari eta probako antolatzaile eta esatariak, lasterketaren aurkezpenean. Beragaz bat etorri zen Anabel Landa alkatea: «Hiri-miliarik onena izan gara Estatu mailan azken hiru urteotan. 7.000 biztanleko herri batentzat erabateko harrotasuna da». Landak probak lortutako mailaren zergatia ere azaldu zuen: «Daukagun dirua daukagu, eta ez da asko; antza, maila teknikoan dugu aldea».

Carlos Sergio Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol zuzendariak azpimarratu zuenez, «probak mapan ipini du Berango». Haren ustez, «dirua ez da beti kontu nagusia, maitasuna eta pasioa baizik. Hori Berangon badago, eta atletek ere jaso eta barnerrazten dute. Bizkaian eredugarria da Berangoko milia». Bestalde, Uribe Kostan isiotutako su horrek gazte gehiagok atletismoan parte hartzeko balio izan duela uste du. Ildo beretik jo zuen Miguel Angel Munitxa Bizkaiko Atletismo Federazioko presidentek: «Milia horretan maila denetako atletak lehiatzen dira, eta denek har dezakete parte. Hori oso garrantzitsua da», zehaztu zuen, atletismoaren etorkizuna gogoan. Izan ere, hamazazpi maila izango dira zapatuan. Izena emateko azken eguna egue-na izango da, urriaren 4a, eta interesa dutenek berangoatletismo.com webgunean bete ahal izango dute doako inskripzioa.

**NAZIOARTEKO KIROLARIEN PRESENTZIA HANDIA.** «Estatu espainiarreko eta Europako iraupen-erdiko lasterketako korrikalaririk onenak ikusi ahal izango ditugu zapatuan», iragarri zuen Josu Hernández atletismo-klubeko presidentek. Ez da gutxiago izango, besteak beste honako atleta hauek lehiatuko dira eta: Solange Pereira Da Ponte galiziarra, iazko irabazle eta aurtengo txapelduna Iberoamerikako 1.500 metroetan eta Espainiako Milian; Zulema Fuentes Pila espainiarra, lau-



Atletek Gobelaldeko hiri-zirkuitu homologatuan beteko dituzte probaren 1.609,344 metroak. © JOSE BARREKALE - IDEUS

## Mailen izenak aldatu dituzte

Berangoko Nazioarteko Miliak mailen izendapena aldatu du aurtengo, Nazioarteko Atletismo Federazioen Batasunak (IAAF) erabaki legez. Hala, orain arte kimu-, ume-, kadete-, gazte-, eta junior-mailak zirenak edizio honetatik aurrera 12, 14, 16, 18 eta 20 urtez azpiko mailak izango dira. Izena aldatu da, baina ez izana.

tan Berangoko milian irabazle eta errekor-egile (04.54), eta Espainiako aurtengo txapeldunordea 10.000 metroetan; eta Adel Mechaal iazko irabazle eta errekor egileetako bat (04.18), eta Espainiako txapeldunordea 1.500 eta 5.000 metroetan.

**MILIA AURRERATUKO DUTE.** Aurtengo, Berangoko Nazioarteko Milia hamar minutu lehenago hasiko da; halandaze, 2006an eta 2007an jaiotako neskek 16:10ean hasiko dira. Arnedok aitortu duenez, «beti oso estu» ibili dira denbora aldetik. Berango Atletismo Taldea urtero ahalegintzen da proba hobetzen eta aurtengo aldaketa txiki hori egingo du, laugarren urtez segidan Estatu espainiarreko hiri-miliarik onena izateko asmoz. Bestalde, «herri honetako kultura bultzatzeko», txalaparta-ikuskizuna izango da Gobelalden, Hernándezek azaldu zuenez. ◀



Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus  
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus

ANDER DE GREGORIO · KEPA AGINAGA | Arraunlariak

# «Isuntzakook Asterix eta Obelixen herrixka gara»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

**V**alerio Basozabal algortarrak sortu zuen Isuntza arraun-taldea 1977an (gaur egun Lekittarra du ize-na), lekeitiar gazte-kuadrilla bategaz. Lehenengo batela ere Getxo aldetik jaso zuen Lekeitioko klubak opari, eta bigarrena Plentzian erosi zuen. Uribe Kostaren eta Lea Artibairen arteko harreman hori sendotu dute Getxoko Ander De Gregorio Escribano eta Gorlizko Kepa Aginaga Garai arraunlariak *Lekittarraren* tostan: joan den irailaren 16an, Ibaizabalen lortu zuten TKEn Ligarako igoera.

**Bermeon irabazita eta hurrengo egunean Ibaizabalen bigarren sartuta playoffa irabazi zenuten. Zelan hartu zenuten momentu hori?** ANDER DE GREGORIO: Bermeoko emaitzaren ostean, Portugaleten aukera handiak genituen TKEn ligara igotzeko, baina heldu arte ez genekien zer gertatuko zen edo karanbolaren bat egongo zen. Oso urduri eta nekatuta sartu ginen helmugan. Patroiak eskuak altxatu zituenean asko poztu nintzen, sabelean nituen urduritasun denak atera nituen; besoak jaso eta oihukatu nuen. Ez dakit zer sentitu nuen, baina barruan neukan estresa atera nuen, modu batean edo bestean. KEPA AGINAGA: Berdin gertatu zitzaidan, baina nik negar egin nuen, eta ugari gainera. Urte askoko tentsioa, ahalegina, buruan neukana... Hori dena malkoetan atera zen. Azken unera arte ez genuen ezer segurutzat jo, gure entrenatzaileak oinak lurrean dituelako; domekan edozein kontu gerta zitekeenez, kontzentratuta egoten behartu gintuen azken unera arte. Baina patroiak eskuak jaso zituenean barrukoak ateratzen utzi nituen. Eta nik legez, bestek: oihuka, negarka, besarkadaka... Kristoren poztasuna izan zen, deskribaezina.

**Zer nolako harrera egin zizueten Lekeition?** K.A.: Izugarria izan zen, oso hunkigarria. Udaletxeko balkoitik ikusten genituen denak eta oihuka hasi zirenean, banderakaz, abesten, animatzen... kristorena izan zen. Gu ere ez gaude ohituta.



Datorren denboraldian, aste bi barru, *Lekittarraren* tostan segituko dute De Gregoriok eta Aginagak. OSKAR GUTIERREZ



© EIDER M. - HITZA.EUS

## Getxo eta Lekeitio ez dira berdinak

Lekeition «nabaritzen da arraun-zaletasun handia» dagoela eta jendeak kirol hori segitzen duela, azaldu du Ander De Gregoriok. Denboraldi osoan, Isuntzak banderak irabazi dituenean eta, batez ere igoera lortu duenean, arraunlariak autobusean portutik pasatu direnean jendea gelditu egin da, txaloka. Igoera ospatzera udaletxera joan zirenean, 21:00ak aldera, «taberna batzuek zerratu egin zuten jendea bertara bidaltzeko», gogora ekarri duenez. «Getxon ez dago halakorik, giro hori ez dut ikusi», aitortu du arraunlari getxoztarrek.

**Isuntzak edo Lekittarrak hamahiru urte behar izan du TKE-ra bueltatzeko. Hori dela-eta presioa ala bultzada nabaritu duzue?** A.D.G.: 2013an ehunenengatik igoeratik kanpo geratu zen. Neukan sentsazioa zen ezin zela berriro berdin gertatu. Posible zen ez igotzea, baina ez ehunenengatik. Batez ere, 2013an egon zirenentzat jasanezina izango zelako. K.A.: Jendearen ilusioa nabaritu dugu, bultzada handia izan da. Gure jarraitzaile-taldearen gehiengoa arraunlari ohiak dira eta orain tostan dabiltzanak haien anaia txikiak dira. Arraunlari izandako horiek TKEn egon ziren orain dela hamahiru urte eta orain gogo handia zeukaten eurek lortu zutena euren anaia txikiek ere lor zezaten. Anaia txikiek ere, ezer frogatu behar ez zuten arren, erakutsi gura zuten eurak ere kapazak direla. Presioa baino grina handia egon da.

**Zelan sentitu zarete denboraldi osoan?** K.A.: Neguak Isuntzan arraroak dira, inoiz ez dugulako jo eta su lanean jarduten. Baina uda heldu zen eta nahiko erregularrak izan ginen. A.D.G.: Jaitsieretan eta neguko txapelketetan ez dugu gure maila ematen, gure prestakuntza beste modukoa delako. Beti daude faboritoak: Astillero, Portugalete, Deustu... eta Isuntzaren gainean inork ez du berba egiten, baina gero hor gaude. Ikusten baduzu Astilleroko lantaldea, metro biko hogeit erraldi dira, gu berriz Asterix eta Obelixen herrixka gara, baina uda ailegatzen denean gure maila ematen dugu, eta askori irabazten diogu, eta gainera ondo irabazi. ◀

**Uribe Kostako AEK  
EMAN IZENA!**

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aek.eus  
Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus  
Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus  
Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.aek.eus/blogak/uribekosta  
www.facebook.com/uribekostako.aek

**aek** euskara praktikoa

**Zu hemen zaude,  
AEK ere bai**

100 euskaltegi baino  
gehiago Euskal Herri osoan



**EUSKARA-IKASTAROAK**

URIBE KOSTA | Euskaraldia martxan

## Euskaraldia antolatzeke bilerak, herriz herri

Aurrera doa Euskaraldia ekimena eskualdean. Talde eragileen hainbat bilera ireki egiten dabilta egunotan kanpaina antolatzen jarraitzeko, eta gainera, Gorlizen aurkezpen-ekitaldia egingo dute domekan, hilaren 7an. *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* euskal hiztunak aktibatu eta euskararen aldeko inertzia positibo berriak sortzeko ekimena da, azaroaren 23tik abenduaren 3ra iraungo duena. Tarte horretan, parte-hartzaileek Ahobizi edo Belarriprest rolak hartu ahal izango dituzte. Hurrengo bilerak 11. orrialdeko Agenda atalean ikusbide daude.



BERANGO | Indarkeria matxistari aurre

Indarkeria matxistaren aurka egiteko proposamenak aurkezteko topaketa egingo dute hilaren 9an Berangoetan, 19:00etatik aurrera.

URDULIZ | Euskara

Gurasoentzako eta dendarientzako euskara-ikastaro bereziak eskainiko ditu Udalak, Uribe Kostako AEKgaz batera, doan.

GETXO | Munduko Sokatira Txapelketa

Hegoafrikako Lur Gaineke Munduko Sokatira Txapelketa ikusi zuten Udaleko ordezkariak, Getxon izango baita 2020ko Munduko Txapelketa hori.

URIBE KOSTA | Lehenengo kanporaketa

Imanol Uria eta Paule Ixiar Loizaga lehiatuko dira Gernika-Lumon jokatu den Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketan, hilaren 6an.

**Berbaldun**  
EUSKARAZ EGIN DEZAGUN

*eman ordu bat euskarari*

Email izena  
berbaldunleia@gmail.com  
☎ 655 550 121




**hiruka app berria**


Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.






- Agenda
- Albisteak
- Argazkiak eta bideo albumak
- Geolokalizazioa
- SOS botoia

**Deskargatu!**




**GETXOko XXXVI. ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**JORNADAS DE TEATRO**

**URRIA 5-14 OCTUBRE 2018**

944 914 080 • kulturetxea@getxo.eus • www.getxo.eus



# hiruka

**HIRUKA kooperatiba elkarte**

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO  
**e-posta:** hiruka@hiruka.eus  
**Posta-kutxa:** 171  
**Telefonoa:** 944 911 337  
**Publizitatea:** Idoia Lorente  
**Erredakzio-burua:** Unai Brea  
**Erredakzioa:** Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena  
**Argazkiak:** Hodei Torres, Oskar Gutierrez  
**Diseinua:** Artefakto  
**Kudeaketa:** Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea  
**Kolaboratzaileak:** Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña  
**Filmazioa eta Inprimategia:** BEPSA  
**Lege-gordailua:** BI-2022-2014  
**ISSN:** 2386-98-95  
**Ale-kopurua:** 8.000  
**CC-BY-SA**

## Erakunde laguntzaileak



## Bizkaia

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**


Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

## HIRUKAlagunen txokoa

# Non dago? Lehiaketa

**Bizkaiko Bertsozale  
Elkarteari esker,  
Plentziako saioaz  
gozatzeko sarrerak  
zozkatuko ditugu**

Urriaren 28ko (domeka) bertso-saioaz  
gozatzeko sarrera bikoitza lortu  
gura baduzu, urriaren 21a (domeka)  
baino lehenago bidali erantzuna, zure  
izen-deiturak eta harremanetarako bidea  
hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus)  
edo 944 911 337.



## Urriko saria



Uda ostean erlaxatzeko sorta,  
Jabonarte dendaren ekimenez

**Erandioko komertzioari esker, sari hori zozkatuko  
dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.**

Zozketan parte hartzeko, bidali urriaren 31 (eguztzena) baino lehenago,  
zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:  
[administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.

# Zelan egin HIRUKAlagun?

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako  
euskarazko komunikazio-taldearen  
bultzatzailea eta partaidea izango zara.**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   | 5 |   |   | 4 |
|   | 4 | 6 |   | 9 |   |   |
|   | 8 |   | 3 |   | 5 | 7 |
|   |   |   | 2 | 7 | 3 | 1 |
|   |   |   |   | 4 | 1 |   |
| 8 |   |   | 9 |   |   | 4 |
|   | 6 |   |   | 8 |   | 3 |
| 9 | 5 | 1 |   |   |   |   |
| 7 |   |   |   |   |   |   |

|   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   | 8 |   | 7 | 2 |
| 5 |   |   |   | 1 |   | 9 |
|   |   |   |   |   |   |   |
| 8 | 6 |   |   | 2 |   | 4 |
|   |   | 1 |   | 4 |   | 3 |
|   |   |   |   |   |   | 6 |
|   | 1 | 9 |   |   | 2 |   |
|   |   |   | 6 | 7 |   | 5 |
|   |   |   | 4 |   |   | 6 |

## Soluzioak

Gogoan har egizu  
1etik 9ra arteko  
zenbaki denek  
agertu behar  
dutela zutabe,  
ilara eta azpilauki  
bakoitzean.

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 1 | 9 | 6 | 4 | 5 | 8 | 7 |
| 8 | 5 | 6 | 1 | 7 | 9 | 3 | 4 |
| 3 | 4 | 7 | 2 | 5 | 8 | 1 | 9 |
| 9 | 2 | 5 | 8 | 1 | 3 | 6 | 7 |
| 6 | 8 | 3 | 9 | 7 | 4 | 1 | 5 |
| 7 | 4 | 1 | 2 | 5 | 6 | 3 | 9 |
| 5 | 7 | 1 | 4 | 8 | 2 | 9 | 6 |
| 4 | 9 | 7 | 3 | 1 | 6 | 5 | 2 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 9 | 1 | 2 | 6 | 3 | 8 | 7 |
| 8 | 2 | 1 | 6 | 3 | 7 | 9 | 4 |
| 7 | 3 | 6 | 5 | 9 | 1 | 8 | 2 |
| 4 | 1 | 9 | 3 | 6 | 2 | 5 | 7 |
| 6 | 7 | 1 | 4 | 8 | 5 | 3 | 9 |
| 3 | 2 | 5 | 7 | 1 | 4 | 6 | 8 |
| 1 | 8 | 9 | 4 | 5 | 6 | 3 | 7 |
| 5 | 4 | 6 | 2 | 7 | 1 | 3 | 8 |
| 2 | 7 | 3 | 5 | 1 | 8 | 4 | 6 |

## Hitza emanda

# Algara

Umorerik ezean  
zelan bizi, bada!  
Serio ibiltzea  
ez ote da traba?  
Egizu irribarre,  
egizu algara:  
umorez bizitza  
serioa da, ba!



**UNAI MENDIBURU  
VALOR**  
Getxo

**ALBE**  
Algortako  
Bertsolari  
Eskola

Musikariak **Ou Mama!**

# «Ipar Amerikako beltzek sortutako abestiak jotzen ditugu»



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO ARGAZKIA: OSKAR GUTIERREZ ▶

**K**otoi-zelai amaigabeetan murgilduta, arrasti eguzkitsu eta lehor bateko atsedenaldira laburrean, garai hartako esklabuen abesti alai zein tristeetan topatu dezakegu Ou Mama!-ren mamirik gordinena.

**Taldearen historia konta egiguzue labur.** Oier Garamendiri formula berri bat bururatu zitzaion blues-musika eta horren jatorriak jendeari ezagutarazteko: musika umoreagaz nahastea, show dibertigarri eta desberdina eskainita. Hasiera batean bikote umoristiko-musikal bat izango zena, Javi Alonso eta Oierrek osatua, apurka-apurka boskote bilakatu zan, Iñigo Mentxaka *Mentxi*, Unai Olaso, Aitor Karrasko eta David Pereirogaz. Debuta 2014an izan zen, Getxoko San Isidro jaietan.

**Gaur egun hain modan dagoen countryaren kontu hori, bere estetika zainduagaz eta bizar luzeakaz... Zelatan zuek countrya euskaraz eta baldar jantzita? Mugimenduaren antitesia zaretela uste duzue?** Ez gara country-talde bat. Gertatzen dena da historian zuriak beltzei «lapurtutako» abestiak, doinuak eta estiloak ezagutu ditugula eurenak bailiran, hau da, zuriak. Jendeak pentsa dezake *Midnight Special*, *Cotton Fields* eta halako abestiak jotzeagatik (country-estiloko Creedence Clearwater Revival eta antzeko taldeek bertsionatutakoak) country-musika jotzen dugula, eta hori ez da egia. Ipar Amerikako beltzek (esklaboek, nekaza-



## Bost urteko ibilbidea

2013. urtean sortutako talde honek roots-blues, rock eta folk amerikar musika-estiloak lantzen ditu, hainbat talderen eragina jasota: Leadbelly, Etta James, Bessie Smith, Otis Redding, Janis Joplin...

riek, langileek, presoek, herri xeheak...) sortutako abestiak jotzen ditugu eta euren jatorria azaltzen dugu. Hori da Ou Mama!-ren betebeharr nagusietako bat. Horregatik garai hartako janzkera. Hori dena argituta, uste dugu sobera dagoela esatea ez dugula hau egiten «moda» tonto batengatik edo *cool* izateagatik. Guztiz kontra-koa. Musika-estiloek aparte, izpiritu nahiko punkya daukagu zentzu horretan, kar kar.

**Musikaz gainera, zuen emanaldiek antzerki-ukitua daukate. Aurretik pentsatutako zerbait izan zen edo zuzenekoan sortzen den kontua da?** Zelan hurbildu jendearengana hain zabaldua ez dagoen musika-estilo bat? Erantzuna argi zegoen. Jendea ez baguen erakartzen musika-estiloagatik, barre apur bat egiteko aitzakiak erakarriko zituen, eta behin kontzertuan ohartuko ziren musika hori ez dela hain ezezaguna, dantzagarria dela, eta parranda on bat eginda eta gauza berri mordo bat ikasita joango ziren etxera.

**Zelan ikusten duzue musikaren egoera?** Esango genuke garai nahiko ilun bat bizitzea tokatu zaigula musikari eta, orokorrean, arte guztiei dagokienez. Adibidez, gero eta zailagoa da taberna batek zuzeneko musika eskaini ahal izatea (baimenak, ordutegiak...). Klean jotzeko, gauza bera. Beste herrialde batzuetan ez da hala gertatzen. Horregaz lotuta (gure kultur eza musikalagaz, esan gura dugu), jendea ez da ohartzen zein gogorra den musikaria izatea, eta zein txarto ordainduta dagoen. ◀